

Erabaki politikoa euskaldunon alde



**ZIGOR ETXEBURUA
URBIZU**
EUSKALTZALEA

Hizkuntza bat babestea erabaki politikoa da, hizkuntza bat zentsuratzera edo murriztea den bezainbat". Hitz argigarri horietan egin zituen Espainiako presidente Pedro Sánchezek, Alderdi Sozialistako presidente ere badenak, irailean, Espainiako Kongresuan euskara (eta estatuko beste hizkuntza ofizial batzuk) erabiltzeko aukeraren alde sozialistak ere agertzeagatik sortutako polemikaren erdian.

Sánchezek hitz politikak egin zituen, baina euskaldunoi dagokigunez, bere alderdiaren urtetako praktika beste murturrean dago, hitz horiekin ez fidatzeko lain. Espainiako Alderdi Sozialistak euskaldunetik bazterkeria praktikatu du Nafarroan, eta horretan jarraitzeko asmoa adierazi du. EAEn, euskaldunon eskubideak eta euskararen lege babesa trabatzen aritu da, eta horretan jarraitzen du; ugariak dira adibideak. PSOEren sukurtsal PSEk eta PSNk ez dute hartu nahi izan hizkuntza eskubideen berdintasuna helburu lukeen eraldaketa sozialaren ardura; ez dute aurretik joan nahi izan gizartea hezten hizkuntza gutxituekiko errespetuan, hiztunen eskubideen berdintasunean. Are, euskaldunon hizkuntza eskubideen bermea ekar zezakeen edozein neurri oztopatu izan dute, eta harro agertu izan dira ho-

rregatik. Ez dira gutxi izan jarrera oldarkor, antieuskaldun eta oso espainolak erakutsitako aldiak. Nolabait, euskararen berreskurapenaren euste hormatzat agertu nahi izan dute, aski espainol ez direla leporatzen dieten sektore erreazionarioen aurrean.

Edonola, sektore neofrankista horiek jo eta pasa egin diete, Espainiako Estatuko zenbait lurraldetan (Balearrak, Aragoi...) berezkoak diren hizkuntzak baztertuta eta espainolaren nagusikeria berrezarrita. Ondorioz, orain Vox eta PPren zaku glotofobo berean ageri dira PSN eta PSE. Ez pentsa, hala ere, horrek gehiegi kezkatu dituenik Sánchezen frankiziak; ez dute euskarazko murgiltze eredurik bultzatuko EAeko Hezkuntza Legean, ezta zonifikazioa erazuziko ere Nafarroako Euskararen Legetik, ez ditzaten beste horiekin parekatu.

Horiek horrela, pilota abertzaleon buru gainean dago, inoiz egoteari utzi badio, euskarari dagokionez behintzat. Izan epai antieuskaldunei desobediencia eginez, edo euskaraz bizitzeko praktika kolektibo orokorra abiatuta, edo hizkuntza politika beregainak adostu eta ezarrita, edo hobeki, horiek guztiak batera eginez, baina euskaldunoi dagokigu gure hizkuntza babesteko eta euskaraz bizitzeko erabaki politikoa hartzea. ●

Ahoa loriaz bete



EDU ZELAIETA ANTA
IRAKASLEA ETA
IDAZLEA

Hautsak harrotu ditu Narayana Murthyk *-Time* aldizkariak izendatutako Indiako informatikaren aitak eta Rishi Sunak Erresuma Batuko lehen ministroaren aitagarrebak-. Izan ere, publikoki adierazi du Indiako gazteek astean 70 orduz lan egiteko prest egon beharko luketela herrialdearen garapenean laguntzeko. Konpromisoz. Urguilu nazionalez. Ez du lehen aldia ahoa loriaz betetzen jaun dohatsu horrek: 2020an, COVID-19ak eragindako motelaldi ekonomikoa zela medio, indiarrek -orduan adin konturik ez zuen aipatu- astean gutxienez 64 orduz lan egiteko proposamena ere egin zuen.

Pandemiaren aurretikoak dira, baina ildo loriatsu berekoak, Jack Ma handiki teknologikoaren adierazpenak *-Forbes* aldizkariak eman zion azala; lehen aldiz, enpresari txinatar bati-. Izan ere, behinola komunismoa besarkatutako martiriak adierazi zuen bedeinkapena dela edonor *996 kultura* delakoaren parte izatea: lanean aritzea goizetako 09:00etatik arratsetako 09:00etara, 6 egunez astean. Hiru zenbaki horietatik heldu da, hain zuzen ere, alfer (madarikatu) batzuek ezagutzen ez genuen zerua.

Talentu dibinoa behar da gero, ahoa -sakela bezala- loriaz betetzen jakiteko. Alajainkoa! ●